

Jakiunde Zientzia, Arte eta Letren akademiak hiru kide izendatu ditu jakitun

KULTURA • Maria Jesus Esteban matematikaria, Francisco Etxebarria auzitegi medikua eta Teresa Catalan musika konpositorea dira Jakiunde akademian sartu diren azken kideak. Orotara, 60 jakitunetik gora dira gaur-gaurkoz. 2007an sortu zen Jakiunde maila goreneko erakunde aholkulari gisa, eta, orduz geroztik, izen ugari bildu ditu: Maria Teresa del Valle, Ibon Sarasola, Itziar Laka, Inma Shara...



Atzo izendatu zituzten hiru jakitunak, Bergaran (Gipuzkoa). JAKIUNDE

Nafarroako Gobernua Durangoko Azokan, hamabost urteren ondoren

KULTURA • Hamabost urte igaro dira Nafarroako Gobernuak azkenean Durangoko Azokan parte hartu zuela, eta aurtengoa, horrekin amaituko dute. Erakuslehoi bat jarriko dute azokan, eta, gainera, areto nagusiko Gogoetaren plazan izango dira, kultur politika eta eragileen inguruko mahai inguru batean. Azokako inaugurazio ekitaldian ere izango dira Nafarroako Gobernuak ordezkariak.

22.699

BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEKO IKUSLEKOPURUA

Joan den urriaren 31tik azaroaren 6ra bitartean izan zen Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren 26. Astea, eta, orotara, 22.699 ikusle bildu zituen; joan den urtean baino %5,9 ikusle gutxiago. *Turbo Kid* eta *L'ours noir* filmak izan ziren onenak ikusle horientzat.

Ohorezko Mikeldi saria jaso du Juan Ruiz Antxia zine argazkilari bilbotarrak

ZINEMA • Zinebi Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko 57. Jaialdiak Ohorezko Mikeldi saria eman zion atzoko inaugurazio ekitaldian Juan Ruiz Antxia zine argazkilari bilbotarrari. Ibilbide oparoa du; besteak beste, bi Goya sari ditu, *Mararía* (1997) eta *Blackthorn* (2011) filmetan egindako lanagatik. Hil ondorengo Ohorezko Mikeldi saria, berriz, maiatzean zendu zen Aitor Mazori eskaini zioten.

Gipuzkoan, abenduaren 5etik aurrera eskuratu ahal izango da kultura bonua

KULTURA • Abenduaren 5etik aurrera eskuragarri egongo dira Gipuzkoako Foru Aldundiak banatutako kultura bonuak Gipuzkoako liburu dendetan eta antzokietan. 7.000 bonu izango dira liburuak, diskoak eta DVDak erosteko –erdiak euskarazko produktuetarako–, eta 10.000 bonu ikuskizunetarako. Hogei euro balioko du bonuak, eta 30 euroko erosketa egin ahal izango da harekin.

Musikaren kolorea

Jesus Mari Begoña

Ezohiko musikarekin hasi zen Bilboko Orkestra Sinfonikoaren hirugarren kontzertua. Izan ere, Indiako musika klasikoak gutxi erabilia izan da Mendebaldeko ekoizpenetan, musika arinean izan ez bada. Maila horretan eza-gunak dira Ravi Shankar zitarra jotzailearen joaldiak pop edo jazz musikarekin batera, 1960tik aurrera. Beraz, sasoi horretakoak dira Shankar berak sortu zituen kontzertuak Mendebaldeko musika musika klasikorak hurbiltzeko, eta zitarra –Indiako instrumentua– eta Indiako musika estiloak ezagutzera emateko.

Kontzertuan, haren ikaslea zen Shubhendra Rao zitarra jotzaileak jo zituen bere maisuaren lehenengo kontzertua. Jordi Bernacer zuzendaria izan zen Bilboko Orkestra Sinfonikoaren aurrean. Gu ez gaude musika desberdinen arteko fusioaren aurka, alderantziz baizik. Dena den, egin diren urratsak gutxi dira –jazz musikarekin izan ezik–, eta heldutasunera iristeko, ahalagin jarraituak egin be-

KRITIKA
Musika
Bilboko Orkestra Sinfonikoa

Bakarlaria: Shubhendra Rao.
Lanak: Ravi Shankar eta Modest Mussorgski. **Zuzendaria:** Jordi Bernacer.

harko dira oraindik, bata bestea-
rengandik hain urruti dauden
Ekialdeko eta Mendebaldeko
musikak uztartzeko.

Bilboko publikoa gustura egon
zen bakarlariak zitararekin egin
zuen erakustaldiarekin kontzer-

Shubendra Rao
bikainak bongo
jotzaile onaren
laguntza izan zuen

tuaren lau mugimenduetan ba-
rrrena. Horretarako, Indiako artis-
tak melodia eskema hartu zuen,
horren gainean bat-batekotasu-
na garatzeko. Gure belarrientzat
gogorragoa izan zen lehenengoa
edo Khamaj, eta lortuagoak biga-
rrrena eta azkena, zitarra eta orkes-
traren arteko elkarriketari dago-
kionez. Shubhendra Rao bikai-
nak bongo jotzaile onaren lagun-
tza izan zuen eta ondo konbinatu
ziren; prestu egon ziren Bilboko
Orkestrarekin.

Modest Mussorgskiren *Erakus-
keta bateko koadroak* eta gure
Maurice Ravelek horren gainean
egin zuen orkestra zuzendaritza
bikaina, aproposak izan ziren or-
kestrak distira egin zezan. Eta
BOSek ez zuen horretan hutsik
egin. Jordi Bernacer zuzendariak
interpretazio egokia egin zuen,
eta gardentasuna eta sentsibilita-
tea izan ziren haren trebetasun
nagusiak. Beraren aginduetara,
orkestrak dinamika txukuna eta
adierazgarritasuna erakutsi zi-
tuen, eta azken batean, distira
egin zuen.

Gnomoen pasartean haizezko
batek edo besteak nota batean
egin zituen desafioak edo kata-
konbetan metalezko batzuek egi-
niko denbora-pasa himiñoek ez
zuten ilundu, urrutetik ere ez, la-
naren ontasuna. Azpimarratzeko
da saxofoiak egin zuen bakar-
lari lan ederra beste instrumen-
tuen artean.



Oskorriren azken kontzerturako bi sarrera lortu nahi?

Oskorrik Bilboko Arriaga antzokian egingo duen azken kontzerturako bi sarrera zozketatuko ditugu; adi!



Arriaga antzokian • azaroaren 22an • 19:00etan

Sartu
mauka.eus/zozketa/ helbidean,
eta idatzi zure helbide elektronikoa
azaroaren 15a baino lehen